



## ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

**Espediente zk./Nº expediente:** 2023UPOL0013

**Gaia/Asunto:** Alabergako OTAren zonaldearen modifikazioa / Modificación de la zona de OTA de Alaberga

**Eskatzailea/Solicitante:** ERRETERIAKO UDALA

**NAN(IFK)/DNI(NIF):** P2007200E

**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRETERIA

### DEKRETUA

#### AURREKARIAK

Alaberga auzoan egiten ari diren hirigintza-garapen berriekin, zehazki trenbidea lurperatzeko obrei dagokienez, ibilgailuak auzo horretan aparkatzeko plaza ugari murriztu dira, eta horrek zuzenean eragiten die bizilagunei.

Alabergako "Arditurri" Auzo Elkartetik jasotako eskaerei erantzunez, eta aparkatzeko plazen arazo hori arintze aldera, beharrezkotzat eta aldekotzat jotzen da TAO erregulazio-eremua zabaltzea, **aldi baterako, trenbidea lurperatzeko obrak amaitu arte**, eta honi erantsitako dokumentuan jasotako eremuak gehitzea, ondoren deskribatzen diren muga eta izendapenen arabera.

#### ANPLIAZIOAK 4. EREMURA: ALABERGA

##### - Aparkatzeko plazak:

Alaberga auzoko 32. eta 35. zenbakien artean dagoen kirol-gunearen ondoan dauden aparkalekuak 4. guneari dagozkion TAO aparkaleku arautura gaituko dira. Aparkaleku horiek gaur egun araututa daude gaueko aparkaleku gisa, eta aldaketa horrekin 24 ordukoak izango dira, TAO sistemak araututa.

Era berean, goiko aldean eta Alaberga auzoko "Agrupación Taurina Hermanos Camino" egoitzaren ondoan dauden aparkalekuak ere TAO aparkaleku

### DECRETO

#### ANTECEDENTES

Con los nuevos desarrollos urbanísticos que se están llevando a cabo en la zona del barrio de Alaberga, concretamente en lo que respecta a las obras de soterramiento del "topo", se han visto reducidas numerosas plazas de estacionamiento de vehículos en dicho barrio, lo que afecta directamente a los vecinos.

Atendiendo a las demandas recibidas desde la Asociación de Vecinos "Arditurri" de Alaberga como zona afectada y con el fin de paliar esta problemática de plazas de estacionamiento, se considera necesaria y favorable la ampliación del ámbito de regulación OTA, **de manera temporal, hasta que finalicen las obras de soterramiento del "topo"** incorporando a ésta las zonas comprendidas en el documento anexo, de acuerdo a los límites y denominaciones que a continuación se describen:

#### AMPLIACIONES A LA ZONA 4: ALABERGA

##### -Plazas de estacionamientos:

Se habilitarán como estacionamientos regulados OTA correspondientes a la zona 4, los aparcamientos situados junto a la zona deportiva situada entre los números 32 y 35 del barrio de Alaberga, los cuales actualmente están regulados como estacionamiento nocturno y con este cambio pasarán a ser de 24 horas regulados por el sistema OTA.

Así mismo, también pasarán a ser estacionamientos regulados OTA los situados en la parte superior y junto a la sede de la "Agrupación Taurina Hermanos



## ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

arautuak izango dira.

### - Egoiliar berriak:

Alaberga auzoko 33, 34, 35, 36 eta 37 zenbakietako bizilagunak 4. gune horretan sartuko dira, eta behar bezala jakinaraziko zaie, TAO aparkatzeko erregulazio-sistemarako egoiliar-txartela lortu ahal izateko.

- Irudia erantsi da I. Eranskinean

Errenteriako Udaltzaingoko bitarteko ofizialburuak TAO erregulazio-eremua zabaltzearen aldeko txostena egin du 2023ko apirilaren 13an.

Lurralde batzorde informatzailearen hurrengo ohiko bilkuran gai honen berri emango da.

Udal Aholkulari Juridikoak espedientean jasotako dekretu proposamenari oniritzia eman dio.

### **ZUZENBIDE OINARRIAK**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. 25.2 b) artikulua.

- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. 7. b) artikulua.

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko udalerrien Erakundeena. 17.4. artikulua.

- Errenteriako Udalaren Trafikoari buruzko Ordenantza orokorra. 7. eranskina, "denbora mugatuko trafikoa eta aparkamendua antolatze arauak (TAO)". 16.artikulua.

Horregatik guztiatik, Alkatetza honek eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-

Camino" del barrio de Alaberga.

### -Nuevos residentes:

Se incorporarán a esta zona 4 ya existente, los vecinos de los números 33, 34, 35, 36 y 37 del barrio de Alaberga, a los cuales se informará debidamente con el fin de que puedan gestionar la adquisición de la tarjeta de residente para el sistema de regulación de estacionamiento OTA.

- Se adjunta imagen en Anexo I.

El 13 de abril de 2023 ,el oficial jefe en funciones de la Policía Local de Errenteria ha realizado el informe favorable a la ampliación del ámbito de regulación OTA.

Se dará cuenta de este asunto en la próxima comisión informativa de Territorio.

La Asesora Jurídica ha dado el visto bueno a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

### **FUNDAMENTOS DE DERECHO**


- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. Artículo 25.2 b).

- Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial. Artículo 7b).

- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. Artículo 17.4.

- Ordenanza general de tráfico del ayuntamiento de Errenteria. Anexo 7 sobre "normas reguladoras para la ordenación de tráfico y aparcamiento con tiempo limitado (OTA). Artículo 16.

Por todo ello, esta Alcaldía, con la conformidad dada por la asesora jurídica municipal a la propuesta de



**ERRETERIA  
UDALA**

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

proposamenari emandako adostasunarekin, esleituta dituen eskumenak baliatuz.

Honen bidez,

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Errenteriako Udaltzainburuaren informe teknikoan zehaztutako, Alabergako TAO eremua aldatzea eta handitzearen onartzea.

**Bigarrena.-**Udalbatzari dekretuaren berri ematea hurrengo bileran.

**Hirugarrena.-**Errenteriako udaleko web orrian eta GAOn argitaratzea.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

decreto que consta en el expediente, en uso de las atribuciones que tiene conferidas.

Por la presente,

**RESUELVO**

**Primero.-** Aprobar la modificación y ampliación de la zona de OTA de Alaberga, detallado en el informe técnico del oficial jefe de la Policía Local de Errenteria.

**Segundo.-**Dar cuenta del Decreto al Pleno de la Corporación en la próxima sesión que se celebre

**Tercero.-** Publicar en la página web del ayuntamiento de Errenteria y en el BOG.

Errenteria, en la fecha de la firma

Alkatea / La alcaldesa

Aizpea Otaegi Mitxelena



# ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

## I ERANSKINA / ANEXO I



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU5386e557-401c-4413-97bf-cdd6eaade44e**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023UPOL0013-DEKRETUA/DECRETO (ERRENTERIAKO UDALA)